



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

ITUN BIDEZ AMAITZEKO EBAZPENA

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAREN BIZKAIKO ORDEZKARITZA

133-2015 LEA/AVC espedientea

Laburpena:

I. AURREKARIAK.....	1
II. JOKABIDEEN DESKRIBAPENA.....	6
1. EHAEO eta Bizkaiko Ordezkaritza.....	6
2. Espedientearen helburu diren jokabideak.....	7
A. Arkitektoen lan-poltsa	8
A. Eraikinen ikuskapen teknikoak (EIT).....	10
C. Energia-ziurtapenak	11
D. Gida-arkitektoen zerrenda	11
III. KONPROMISOEN PROPOSAMENA.....	13
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	14
1. EHAEOren Ordezkaritzari aplikatu dakiokeen araudia	14
2. Itun bidezko amaieraren lege-oinarria.....	16
3. Konpromisoen balioespena	17
V. ERABAKI DU:	20
ERANSKINA.....	22

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (hemendik aurrera, LEK), 2017ko abenduaren 18an eginiko bileran, ebazpen hau eman du EHAEO EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAREN BIZKAIKO ORDEZKARITZAREN 133-2015 espedientea dela eta.

I. AURREKARIAK

2. 2015eko otsailaren 11n, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) informazioa eskatu zion EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAREN Bizkaiko Ordezkaritzari (aurrerantzean, Ordezkaritza), Ordezkaritzak elkargokideekin eta bezeroekin egiten duen bitartekaritza-lanaren zenbait xehetasun jakite aldera.

Informazio hau eskatu zion:



- Ordezkaritzak lan-poltsaren bat kudeatzen duen.
- Hala bada, zein motatako poltsak kudeatzen dituen eta horien funtzionamenduaren xehetasunak.
- Ordezkaritzari ildo horretan igorritako argibideen eta dokumentazioaren kopia.

2015eko martxoaren 25ean, eskatutako dokumentazioa jaso zuen LEAk. Ordezkaritzak emandako informazioaren arabera, bost lan-poltsa kudeatzen ditu:

- Arkitektoen lan-poltsa
- Eraikinen ikuskapen teknikoa
- Energia-ziurtapenak
- Gida-arkitektoen zerrenda eta
- Kanpoko lan-poltsa

3. Arkitektoen lan-poltsa delakoan EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzan diharduten elkargokide guztiek eman dezakete izena. Lan-poltsan daudenek lehentasuna izango dute Ordezkaritzak eskaintzen dituen bekak eta laguntzak lortzeko unean.

Izena eman duten elkargokideak hiru kategoriatan banatzen dira, antzintasunaren edota diru-sarrera profesional gordinen arabera:

A mota. 2 urte baino gutxiagoko antzintasuna duten elkargokideak, edozein kontzepturengatik aurreko seihileko naturalean 6.000 euro baino gehiagoren diru-sarrera profesional gordinak jaso ez dituztenak, , ez eta 12.000 eurorenak ere aurreko ekitaldian.

B mota. 2 urte baino gehiagoko eta 4 urte baino gutxiagoko antzintasuna duten elkargokideak, aurreko seihileko naturalean 10.000 euro baino gehiagoren diru-sarrera profesional gordinak jaso ez dituztenak, ez eta 18.000 eurorenak ere aurreko ekitaldian.

C mota. 4 urte baino gehiagoko antzintasuna duten elkargokideak, aurreko seihileko naturalean 15.000 euro baino gehiagoren diru-sarrera profesional gordinak jaso ez dituztenak, ez eta 25.000 eurorenak ere aurreko ekitaldian.

Urtero, KPlaren arabera eguneratuko dira aipatutako zenbatekoak.

Esleituko diren lanak 4 taldetan sailkatzen dira:

I. taldea - Enpresa pribatuek edo erakunde publikoek eskainitako aldi baterako kontratazioko nahiz kontratazio finkoko lan guztiak.

II. taldea - Besteak beste, ziurtapenak, txostenak, peritu-txostenak, proiektu txikiak eta antzeko lanak, espezializaziorik eskatzen ez dutenak.

III. taldea - Espezializaziorik eskatzen ez duten gainerako lanak.

IV. taldea - Espezializazioa eskatzen duten lan guztiak; esate baterako, egituren patologia garrantzitsuak, instalazioen kalkulu konplexuak eta plangintza-arloko lan konplexuak.



I. taldeko lanak elkargokide guztiei jakinaraziko zaizkie, gutun bidez eta Ordezkaritzaren webgunearen bitartez.

II. eta III. taldekoak, berriz, ordena korrelatiboan esleituko dira izena emateko zerrendatik. II. taldearen kasuan elkargokide bakarrari esleituko zaio, eta III. taldean, ordea, 4 urtetik beherako antzintasuna duen elkargokide bati eta 4 urtetik gorako beste bati.

IV. taldeak espezializazioa eskatzen du, eta auzitegi-perituen elkartearen nahiz EHAEOren hirigileen elkartearen bidez kudeatzen da, kasuan kasuko araudiak aplikatuz, bai eta peritu judizial bezala jarduteko prest dauden arkitektoen zerrendaren bitartez ere.

Nahitaezkoa da esleitutako lanak ordezkaritzan ikus-onestea, baita ordainsariak elkargoaren bidez kobratzea ere.

4. Eraikinen ikuskapen teknikoen (EIT) eta energia-ziurtapenen (ZE) poltsan izena emateko, ezinbestekoa da EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzan elkargokide izatea.

Poltsa hauek abian jarri aurretik, zozketa bat egin zen lanak txandakatzen hasteko zerrendaren zenbakia hautatzeko. Poltsak irekita daude izena emateko. Ordezkaritzaren Idazkaritzak kudeatzen ditu.

Ordezkaritzak nahitaezkoztat jotzen du bi zerbitzuak ikus-onestea.

5. Gida-arkitektoen zerrendaren bidez, eta bere liburutegia baliatuta, Ordezkaritzak bitartekaritza-lanak egiten ditu zerrendan izena eman duten elkargokideen eta dagokion zerbitzua eskatzen dutenen artean.

Elkargokide interesdunek curriculuma helarazten diote ordezkaritzari, eta zerbitzua zein hizkuntzatan eman dezaketean aipatzen dute.

Eskakizunen bat dagoenean, zerrendako lehen hiru pertsonekin hitz egiten da; interesaturik egonez gero, haien harremanetarako datuak helarazten zaizkio zerbitzua eskatu zuen pertsonari. Kontaktatuko pertsonak zerrendaren amaierara igarotzen dira.

6. Kanpoko lan-poltsa Ordezkaritzako Liburutegiak kudeatzen du, eta zerrendan sartu nahi duten lanbide-prestakuntza ezberdineko profesionali zuzenduta dago.

Interesdunek izena emateko formularioa bete behar dute, eta ordezkaritza bitartekaria baino ez da izango: izena emandakoen zerrenda emango dio eskatzen duen elkargokideari.



7. 2015eko ekainaren 17an, sumatutako jokabideak deskribatzen zituen ohar labur bat bidali zion LEAk Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) Lehiaren Zuzendaritzari, dokumentazio lagungarri guztiarekin, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeko Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera¹. LEAk adierazi du eskumena duela jokabideak aztertzeko.

2015eko uztailaren 6an, MLBNren ofizio bat jaso zen LEAren Erregistroan. Ofizio horretan, jasotako proposamenari jarraikiz, LEA ere eskuduntzat hartu zen. Gainera, zehapen-espeditente bat hasiz gero MLBNren Lehiaren Zuzendaritza alderdi interesdun gisa onartzeko eskatzen zuten.

8. Lan-poltsen funtzionamendua aztertu ondoren, eta arauak hausten direlako arrazoizko susmoak zeudenez gero, 2015eko uztailaren 13an, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzari zehapen-espeditentea irekitzea adostu zen, ikerketa-zuzendariaren ebazpenaren bidez, Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legeak (LDL) 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat². Aipatutako ebazpena betez, espeditentearen parte interesdunak dira, batetik, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritza eta, bestetik, MLBNren Lehiaren Zuzendaritza.

2015eko uztailaren 15ean eman zitzaion espeditentea irekitzearen berri Ordezkaritzari, eta 2015eko uztailaren 14an MLBNri.

9. 2015eko urriaren 22an, JCMren idazkia jaso zen LEAren Erregistroan, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzaren izenean eta hura ordezkatzuz. Idazki horretan, zehapen-prozedura itun bidez amaitzeko jarduerak abiatzeko eskatzen zuten. Idazkian, konpromisoen proposamena aurkeztuko zuela hitzematzen zuten, "Ikerketa Zuzendaritza horrek itun bidez amaitzeko jarduerak abiatzeko hitzarmenean adierazten zuten epean".

Itun bidez amaitzeko izapideak abiatzeko egokitasuna balioesteko, beharrezkoa zen EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzari datu zehatz batzuk eskatzea. 2016ko urtarrilaren 11n, hortaz, erabaki bat eman zen; horren arabera, aipatutako xedeetarako eskaera bat egitea adostu zen, eta hilabete bateko epea ematen zitzaion hura betetzeko.

2016ko urtarrilaren 10ean jakinarazi zen erabakia, eta 2016ko otsailaren 12an jaso zen eskatutako informazioa LEAren Erregistroan.

¹ 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeko (2002ko otsailaren 22ko BOE, 46. zk.).

² 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsarako (BOE, 159. zk., 2007ko uztailaren 4koa).



2016ko apirilaren 15ean, informazioa eskatzeko beste bi erabaki eman ziren: bata, Eusko Jaurlaritzaren Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari zuzenduta, eta bestea, ostera, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Zuzendaritzari. Eskatutako informazioa 2016ko maiatzaren 5ean eta 13an jaso zen, hurrenez hurren, LEAren Erregistroan.

10. 2016ko maiatzaren 23an, Lehiaren Defentsari buruzko Araudiaren 39. artikuluan ezarritakoari jarraikiz³, zehapen-prozedura itun bidez amaitzeko erabaki bat eman zen; hala, bada, zehapen-prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa indargabetu zen, eta hamabost eguneko gehieneko epea eman zitzaion eskatzaileari konpromisoen proposamena aurkez zezan. 2017ko maiatzaren 30ean eman zitzaion erabakiaren berri Ordezkaritzari, eta 2016ko maiatzaren 27an MLBNri.

11. 2016ko ekainaren 16an, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzak bidalitako konpromisoen proposamena jaso zen LEAren Erregistroan. Idazki horretan, honako konpromiso hauek hartzen zituzten: lan-poltsen araudia behin betiko ezabatzea, bai eta aurreko sistemaren araudia berariaz indargabetzeko beharrezkoak ziren hitzarmenak ezartzea ere; arkitektoak identifikatzeko eskaerak bideratzeko sistema bat ezartzea, borondatez izena eman duten edozein elkargotako arkitektoek osatutako zerrenden bitartez; eskatzaileari zerrenda osoa helaraztea eta profesionala Ordezkaritzak esku hartu gabe aukeratzea; Ordezkaritzak ikus-onespenik ez eskatzea, nahitaezkoa bada edo borondatez eskatzen bada izan ezik; arau-xedapen (esaterako, Prozedura Zibilararen Legea, Notariotzaren Legea edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorra) baten ondore diren zerrendak mantentzea; webgunean arkitektoei zuzendutako eskaintzak argitaratzea, edozein interesdunek egindakoak; EHAEOn Gobernu Batzordeari lehiaren alorreko jardunbide egokien kode bat aurkeztea; itun bidez amaitzeko ebazpenaren edukia zabaltzea Ordezkaritzaren komunikabideen bitartez (Ordezkaritzaren eta EHAEOn webgunean sartzea eta elkargokideei gutuna bidaltzea); eta LEAri hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa helaraztea. Gehienez ere lau hilabeteko epean egiteko konpromisoa hartzen dute, itun bidez amaitzeko ebazpenetik zenbatzen hasita.

12. 2016ko irailaren 29an askotariko informazioa eskatzeko erabakiak eman ziren, txostenak edota tasazioak egiteko adituak esleitzeko moduari dagokionez. Erabaki horiek Euskal Herriko Notario Elkargoari eta Arabako,

³ 261/2008 Errege Dekretua, otsailaren 22koa; horren bidez onesten da Lehiaren Defentsari buruzko Araudia. BOE, 50 zk., 2008ko otsailaren 27koa.



Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei helarazi zitzaizkien. Antzeko informazio-eskaera egin zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Justizia Administrazioaren Zuzendaritzari, 2016ko urriaren 3an. Eskatutako informazioa 2016ko urriaren 13tik 2016ko abenduaren 20ra bitartean jaso zen LEAren Erregistroan.

13. 2017ko irailaren 1ean, konpromisoen proposamena igorri zen, Lehiaren Defentsarako Araudiaren 39. artikuluan xedatutakoari jarraikiz; batetik, LEKak jakin zezan eta, bestetik, MLBNk, alderdi interesduna den aldetik, nahi beste arazoibide egin zitzaion hamar egun baliouduneko epean. 2017ko irailaren 7an, MLBNren arazoibideen idazkia jaso zen LEAn. MLBNk uste du Ordezkaritzaren konpromisoek azalpen hauek izan beharko lituzketela:

Berariaz adieraztea **lanbidean jarduteko lege-baldintzak betetzen dituzten arkitekto guztiek izena eman dezaketela zerrendetan**, kide den profesionalen elkargoa eta bizi den tokia gorabehera.

Berariaz adieraztea **ez dela inongo aipamenik egingo prezioei eta ordainsariak jasotzeko elkargoaren bitartekaritzari buruz**; aitzitik, profesional bakoitzak zehaztuko ditu bere zerbitzuen prezioak.

Berariaz adieraztea **ez dela egongo lanak ikus-onesteko betebeharririk, ez eta lanak kasuan kasuko Ordezkaritzan erregiratze betekizunik ere**.

II. JOKABIDEEN DESKRIBAPENA

1. EHAE0 eta Bizkaiko Ordezkaritza

14. EHAE0 zuzenbide publikoko korporazio bat da, berezko nortasun juridikoa eta bere xedeak betetzeko erabateko gaitasuna eta autonomia dituena⁴.

Besteak beste, arkitektoek behar bezala jarduten dutela zaintzea eta sustatzea du helburu EHAE0k, bai eta elkargokideen lanbide-jarduera hobetzeko aukerak ematea ere. Bestalde, honako funtzio hauek ditu: lanbide-deontologia eta herritarren eskubideak errespetatzen direla bermatzea; Administrazio Publikoekin lankidetzan aritzea lanbideari dagozkion arloetan eragina duen arau-esparrua ezarri edo eraberritzeko; besteak beste, kultura-, gizarte- eta ingurumen-balioen alde egiten duten erakundeekin elkarlanean aritzea.

Lau ordezkaritzak osatzen dute EHAE0: Arabakoak, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak eta Nafarroakoak. Bilbon du egoitza nagusia.

⁴ 1929ko abenduaren 27ko Ministroen Kontseiluaren Lehendakariaren Errege Dekretuaren bidez sortu ziren Arkitektoen Elkargoak, eta 1930eko uztailaren 16ko Errege Aginduak zedarritu zuen haien arloa. EHAE0ren estatutuen azken bertsioa 2016ko otsailaren 25ean onetsi zen. Hemen daude estatutu horiek: http://www.coavn.org/coavn/LibroBlanco/ESTATUTOS_esp.pdf (2017ko irailaren 13an kontsultatu ziren azkeneko aldiz).



Horiek guztiek elkargo profesional bakarra osatzen dute, nahiz eta modu deszentralizatuan jardun; lurralde-eremu bakoitzean, beraz, ordezkariak beren gain hartzen dituzte lurralde-kontseiluetarako legeak xedatzen dituen eginkizunak.

Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak eta ordezkariaren kide bakarreko organoak EHAEOren lurralde-organok dira.

Ordezkaritzaren kudeaketa eta administrazioa horri atxikitako elkargokideek aukeratzen duten Zuzendaritza Batzordeari dagozkio, estatuek zehazten dituzten ordezkari-, administrazio- eta kontrol-eginkizunekin eta Gobernu Batzordeak elkargoaren helburuak betetzeko eskuordetzen dizkion zereginekin.

Ordezkaritza bakoitzak bere aurrekontua du, bai eta jarduteko askatasuna eta erabateko autonomia ere bere lurralde-eremuan, betiere estatutuetan eta Gobernu Batzordeak eta Batzorde Nagusiak ezartzen dituzten gidalerroetan xedatutakoa betez, ordezkari guztien baterako jarduketa eta elkargokide ororen tratua-, eskubide- eta betebeharrak berdintasuna erdiestearren, beren ordezkari edozein delarik ere.

Bizkaiko Ordezkaritza Bilbon dago, eta 1.270 profesional dauka izena emanda.

2. Espedientearen helburu diren jokabideak

15. Zenbait jokabide direla eta, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espedita ireki dio EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzari; jokabideok zerikusia dute berorrek arkitektoen, eraikinen ikuskapen teknikoaren (EIT), energia-ziurtapenen eta gida-arkitektoen lan-politsetarako ezartzen duen arauketarekin, hainbat arrazoi direla medio:

Ordezkaritzak baldintza murriztaileak ezartzen ditu politsetan izena emateko.

Nahitaez ikus-onetsi behar dira ikus-onetsi behar ez diren lanak.

Nahitaez ikus-onetsi behar dira Ordezkaritzan esleitutako lanak.

Elkargoaren bidez kobratu behar dira nahitaez ordainsariak.

Profesionalei lanak esleitzeko sistema bat diseinatu da.

Izan ere, **Bizkaiko Ordezkaritzan elkargokide diren profesionalak** baino ezin dute izena eman politsetan; indarrean dagoen araudiak, hala ere, aukera ematen du elkargo-mugape guztietan aske jarduteko, jatorrizko elkargoa edo profesionalak parte diren elkargoa gorabehera, nahikoa baita horietako batekin bat egitea lurralde nazional osoan jarduteko. Aipatutako murrizketak Bizkaiko Ordezkaritzan elkargokide diren profesionalak mesede egin liezaieke eta, horren



ondorioz, merkatua zatitu eta eskaintza murriztu litezke. Jokabide hori, beraz, parte hartzeko murrizketatzat nahiz lurraldeko sarrera-hesitzat jo liteke.

Lanak ikus-onesteko beharra dela eta, baliteke Bizkaiko Ordezkaritza bere zereginez harago joan izana, Ikus-onesteko Araudian ezarritako inongo kategoriatan sartu ezin diren lanak ere ikus-onestea eskatzen da eta. Horrek beharrezkoa ez den zama gehigarria ekar liezaieke lanok egiten dituzten profesionalari. Eraikinen ikuskapen teknikoak eta energia-ziurtapenak ezin dira nahitaez ikus-onetsi, ez baitaude jasota Ikus-onesteko Araudian aipatzen den zerrendan. Bestalde, poltsa horien bidez esleitutako lanak aipatutako Ordezkaritzan ikus-onesteko betebeharra ezarri da; indarrean dagoen araudiaren arabera, halere, elkargo-erakunde bat Estatu maila baino apalagoko elkargo profesionalak osatzen badute, haietako edozeinetan ikus-onetsi ahal izango du lana sinatzen duen profesionalak.

Jokabideok, hortaz, inongo lege-babesik edo justifikaziorik gabeko jarduteko murrizketa izan litezke.

Elkargoak, gainera, ordainsariak bere bidez nahitaez **kobratzea** proposatzen du; horrek profesionalak kobratzeko politika xedatzeko duten askatasuna mugatzen du, eta eragina izan lezake kobratutako prezioen bateraketan.

Azkenik, ordezkariak profesionalari **lanak esleitzeko** sistema bat diseinatu zuen; horren ondorioz, poltsetako kideen artean merkatua banatu liteke, ordezkariak koordinatuta. Jokabide hori oztupoa izan liteke lanbidean jarduteko, eta profesionalen arteko lehia-gaitasuna murriztu lezake.

A. Arkitektoen lan-poltsa

16. Bizkaian izena emanda dauden 1.270 elkargokideetatik 23k bakarrik eman zuten izena poltsan (% 1,81).

Ordezkaritzaren Zuzendaritza Batzordeak onetsitako araudiari jarraikiz sortu zen poltsa, 2013ko uztailean; lehen, ordea, EHAEOn 1979ko araudi baten arabera funtzionatzen zuen. Izena emandako 23 profesionaletatik, 11k bakarrik eman zuten izena 2013an araudi berria onetsi zenetik.

2013an, izena ematea ukatu zitzairen lau arkitektoari, ez-jardunekoak ziren eta. Bederatzi baja izan ziren: hiru 2012an, lau 2013an eta bi 2014an. Elkargoa uzteagatik, bateraezintasunagatik eta uko egiteagatik jazo ziren baja horiek.

Poltsa honen bidez kudeatzen diren lanak lau taldetan sailkatzen dira. Hiru taldetan (A, B eta C) sailkatzen dira elkargokideak, antzinasunaren eta diru-sarreraren arabera.

1. taldea: enpresa pribatuek edo erakunde publikoek eskainitako aldi baterako kontratazioko nahiz kontratazio finkoko lanak



-guztiei eskaintzen zaizkie, gutun bidez eta elkargoko webguneen bitartez.

2. taldea: ziurtapenak, txostenak eta peritu-txostenak, proiektu txikiak eta antzekoak (espezializatorik eskatzen ez dutenak)

-lan-poltsaren bidez esleitzen zaio elkargokide bati, zerrendaren ordenaren arabera. Zerrenda elkargokideen diru-sarreraren arabera eratzen da.

3. taldea: gainerakoak.

-lan-poltsaren bidez esleitzen zaie 4 urtetik beherako antzintasuna duen elkargokide bati eta 4 urtetik gorako beste bati, baldin eta diru-sarreraren irizpideak betetzen badituzte.

4. taldea: espezializazioa eskatzen du.

-auzitegi-perituen elkarteen nahiz hirigileen elkarteen bidez esleitzen dira, dagozkien araudiei (hots, EHAE Oren araudiei) eta peritu judizialen zerrendari jarraikiz. (Elkarteei buruzko hurrengo ataletan aztertzen da)

2, 3 eta 4 taldeetako profesional baten zerbitzuak eskatzen dituen bezeroak 30 euro ordaindu beharko ditu, eta horren BEZa.

2 eta 3 taldeetako lanak urteko 25.000 euroko diru-sarrerak gainditzen dituzten arkitektoentzat itxita daude; izan ere, taldeok sortzeko arrazoietako bat hau zen, hain zuzen: "Titulua berriki atera dutenek eta diru-sarrera txikiak dituztenek lan-merkatuan txertatzeko aukera izatea, izena emandako arkitektoei interesatzen zitzaizkien lanen espezializazio eta lanbide-eskarmentuko eskakizunekin". (Lanak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da aurreko sei hilekoan 15.000 euro baino gehiagoren diru-sarrerak ez izana, edo 25.000 aurreko urtean).

4. taldeko lan espezifikoen eskakizunak (hau da, espezializazioa eskatzen dutenak) peritu judizialen eta hirigileen elkarteek sortutako zerrenden edo peritu judizialen zerrendaren bitartez bideratzen dira, eskatzaileak kasuan-kasuan eskatzen duenaren arabera.

2013. urteaz geroztik, 20 lan baino ez dira esleitu "arkitektoen poltsak" baliatuta.

2013: 8

2014: 8

2015: 4

Zio horrengatik jasotako ordainsariak 11.357,60 euro dira:

2013: 3.082,34

2014: 6.097,2

2015: 2.178

16 baino ez ziren ikus-onetsi.

Elkargoak kobratutako Elkargoko Esku-hartzeko Eskubideak (EEE) 962,82 euro dira (2013 - 208,70 euro; 2014 - 588 euro; eta 2015 - 166,12 euro).



Arkitektoak askatasun osoz ezartzen ditu ordainsariak, baina elkargoaren bidez kobratu behar dira.

2015. urtea baino lehen ez zen kudeaketa-gasturik kobratzen; 2015ean, poltsa eten arte, 79,58 euro sartu ziren.

A. Eraikinen ikuskapen teknikoak (EIT)

17. Ordezkaritzan izena emanda dauden 1.270 elkargokideetatik, 262 daude poltsan (% 20,62).

Eskatzen duenari zerbitzu emateko sortu zen, eraikinen ikuskapen teknikoen betebeharra ezartzeagatik⁵. Poltsa gutxi erabili da, horretan espezializatutako enpresak sortu eta ezagutzera eman baitira merkatuan.

Funtzionamendu-araudia energia-ziurtapenen berdina da, eta 2013ko uztailaren 5ean onetsi zen.

10 euro ordaintzen dira zerrendetan izena emateagatik (lehen aldian bakarrik). Ordezkaritzak zenbateko hauek jarri ditu:

2013: 2.430 euro

2014: 170 euro

2015: 40 euro

Ez da zerrendako inor atzera bota edo kanporatu.

Ordezkaritzak ez du lanik esleitzen; aitzitik, hiru arkitekto eskaintzen ditu, eta ez dago kontratatu diren ala ez jakinarazi beharrik.

Ez ditu kobratu beharreko ordainsariak finkatzen.

2013ko uztailetik, abian jarri zenetik, 18 hirukote proposatu dira:

2013: 6

2014: 3

2015: 9

Lanak ez dira ikus-onetsi.

Eusko Jaurlaritzako Energiaren eta Meategien Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, hau izan da Bizkaian 2013tik 2016ra bitartean egindako EITen kopurua:

2013: 286

⁵ Hipoteka-zordunak laguntzeko, gastu publikoa kontrolatzeko, toki-erakundeek enpresekiko eta autonomoekiko dituzten zorrak bertan behera uzteko, enpresa-jarduera sustatzeko, eta Administrazioa eraberritzeko eta soiltzeko neurriei buruzko uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretua. BOE, 161. zk., 2011ko uztailaren 7koa eta udal-ordenantzak.



2014: 951

2015: 1764

2016. 111 (2016ko apirilaren 22an): GUZTIRA: 3.012

C. Energia-ziurtapenak

18. Bizkaiko 1.270 elkargokideetatik, 247 daude poltsan (% 19,44).

Funtzionamendu-araudia eraikinen ikuskapen teknikoenen berdina da, eta 2013ko uztailaren 5ean onetsi zen. Eskatzen duenari zerbitzu emateko sortu zen, horien betebeharra ezartzeagatik.

10 euro ordaintzen dira zerrendetan izena emateagatik (lehen aldi bakarrik), eta ez da EEErik kobratzen. Ordezkaritzak zenbateko hauek jarri ditu:

2013: 2.290 euro

2014: 160 euro

2015: 20 euro

Ez da zerrendako inor atzera bota edo kanporatu (borondatezko baja bat eta heriotza bat besterik ez).

Ordezkaritzak ez du lanik esleitzen; aitzitik, hiru arkitekto eskaintzen ditu, eta ez dago kontratatu diren ala ez jakinarazi beharrik.

Ez ditu kobratu beharreko ordainsariak finkatzen.

Abian jarri zenetik bederatzi hirukote proposatu dira (2013, 4; 2014, 4; 2015, 5).

Birritan baino ez zen lanen esleipenaren berri eman, eta horietako bakarra ikus-onetsi zen, EEErik kobratu gabe. Araudiak ikus-onestea nahitaezkoa dela dioen arren, ez da betetzen.

Eusko Jaurlaritzako Energiaren eta Meategien Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, hau izan da Bizkaian 2013tik 2016ra bitartean egindako EZen kopurua:

Eusko Jaurlaritzak emandako datuak:

2013: 2.400

2014: 12.373

2015: 10.900

2016: 4.173 (2016ko apirilaren 26an).

GUZTIRA: 29.846

D. Gida-arkitektoen zerrenda

19. Zerrendan 42 elkargokidek eman zuten izena.



2009ko abenduaren 1ean jarri zen martxan, elkargokideei zuzendutako 114/09 gutunaren bidez, parte hartu nahi zuenak 2009ko abenduaren 10a baino lehen eman zezan izena (zerrenda beti irekita badago ere). Eskabidearekin batera curriculuma eta hizkuntzak helarazi behar dira.

Hirukote bat bidaltzen da.

Ordezkaritzak ez dio kobratzen izena ematen duenari, ez eta eskatzaileari ere. Ez dago ordainsarien baremorik.

Bost aldiz bidali ziren hirukoteak, bat 2014an eta beste lau 2015ean.

Ez dago araudirik.



III. KONPROMISOEN PROPOSAMENA

20. Bizkaiko Ordezkaritzak honako konpromiso hauek eman ditu:

“LEHENA.- EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzak araututako eta kudeatutako lan-poltsen araudia behin betiko ezabatzea, hau da, hauen araudia: ‘Arkitektoen lan-poltsa’, ‘Eraikinen ikuskapen teknikoaren lan-poltsa’, ‘Energia-ziurtapenen lan-poltsa’, ‘Gida-arkitektoen lan-poltsa’ eta ‘Kanpoko lan-poltsa’. Hartara, aurreko lan-poltsen sistemaren araudia berariaz indargabetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dira.

BIGARRENA.- Partikularrek, sozietateek nahiz merkataritza-erakundeek eta administrazioek edo erakunde publikoek ‘zerrenden’ bitartez helarazi dituzten arkitektoak identifikatzeko eskaerak kudeatzeko sistema bat ezartzea, honela antolatuta:

Zerrendak eratzea: EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzak aukera emango die arkitekto elkargokide interesdunei, webgunean argitaratuta eta gutun bidez jakinarazita, jarraian aipatzen diren ‘zerrendetan’ edo beste edozeinetan (geroago sortu arren publikotasun bera duena) izena emateko urtero, hots:

-Arkitektoen zerrenda orokorra.

-Eraikinen ikuskapen teknikoak egiteko prest dauden arkitektoen zerrenda.

-Energia-eraginkortasunaren ziurtapenak egiteko prest dauden arkitektoen zerrenda.

-Gida gisa esku hartzeko prest dauden arkitektoen zerrenda.

Lanbidean aritzeko lege-baldintzak betetzen dituen arkitekto orok izango du aipatutako zerrendetan eta geroago sortutako beste edozeinetan izena emateko aukera, elkargokide den elkargo profesionala gorabehera.

Zerrendetan izena emateko, organo eskudunak unean-unean onesten dituen zenbatekoak ordaintzea eska dezake Ordezkaritzak; zenbatekook zerbitzu hori emateak sortzen dituen administrazio-kostuak estaltzeko erabiliko dira.

Eskaerak kudeatzea eta zerrendak helaraztea: Ordezkaritzak jasotako arkitektoak identifikatzeko eskaerei erantzuteko, eskaerari dagokion zerrenda bidaliko zaio eskatzaileari.

Eskaera egiten duenak eta ez beste inork aukeratuko ditu profesionalak, dela zerrendatik dela beste edozein iturritatik; Ordezkaritzak ez du inola ere esku hartuko erabakian.

Ez da ikus-onespenari loturiko ezin baldintzarik eskatuko, ez eta Ordezkaritzaren inongo esku-hartzerik ere, baldin eta nahitaezkoak ez badira edo alderdiek askatasun osoz eskatzen ez badituzte.

Egindako eskaeren ondorioz Ordezkaritzak edo EHAEOk jasotzen duen informazioa helburu estatistikoetarako erabiliko da.



HIRUGARRENA.- Beren jarduna betetzeko eta legeak hala agintzen duelako administrazioek edo erakunde publikoek eskatzen dituzten zerrendak mantentzea, hala nola Prozedura Zibilaren Legearen 341. artikuluan, 1862ko maiatzaren 28ko Notariotza Legearen 50.1 artikuluan eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 55. eta 128. artikuluetan adierazitako adituen zerrendak.

LAUGARRENA.- Ordezkaritzaren eta EHAEOn webguneetan arkitektoei zuzendutako lan-eskaintzak txertatzeko eremu bat eratzea.

BOSGARRENA.- EHAEOn Gobernu Batzordeari arkitektoentzako lehiaren alorreko jardunbide egokien kode bat eratzeke proposamena aurkeztea, Lehiaren Euskal Agintaritza horrekin elkarlanean.

SEIGARRENA.- Itun bidez amaitzeko ebazpenaren eduki osoa hedatzea eta, hala balegokio, Ordezkaritzaren komunikabideen bitartez onartzea; zehazki, Ordezkaritzaren eta EHAEOn webguneetan sartu beharko litzateke, eta elkargokideei horren gaineko gutun bat helarazi beharko litzateke.

ZAZPIGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritzari hartutako konpromisoak egikaritu direla egiaztatzen duen dokumentazioa helaraztea, konpromisoak bete direla egiaztatzea.

Konpromiso horiek guztiak berehala bete beharko dira, gehienez ere lau hilabeteko epean zehapen-espeditentea itun bidez amaitzen den unetik zenbatzen hasita”.

IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

21. Lehiaren Euskal Kontseilu honek Ikerketa Zuzendaritzaren ikuspuntua onartzen duen ala ez erabaki beharko du. Hala bada, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzak proposatutako konpromisoak jokabide horrek eragindako lehiarazkoak (egungoak edota izan litezkeenak) konpontzeko egokiak direla ulertuko da, Lehiaren Defentsarako Legeak (LDL) aurreikusitako moduan, baita nahikoak ere prozedura itun bidez amaitzeko hitzarmena onartze aldera.

1. EHAEOn Ordezkaritzari aplikatu dakioken araudia

22. EHAEOn Ordezkaritzari aplikatu dakioken araudi nagusia honako hau da:

- 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionalen buruzkoa⁶.
- 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa⁷.

⁶ 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionalen buruzkoa (BOE, 40. zk., 1974ko otsailaren 15ekoa).

⁷ Euskal Autonomia Erkidegoko 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa (BOE, 237. zk., 1997ko abenduaren 11koa).



- 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzkoa⁸.
- Arkitektoen Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak eta Kontseilu Gorena⁹.
- EHAE Oren estatutu berezia¹⁰.
- 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, eraikuntzaren antolamenduari buruzkoa¹¹.

23. Arkitektoaren lanbideak nahitaez elkargoko kide egitea eskatzen du.

24. Antolamendu juridikoak, profesionalen elkargoei buruz arautzen duenak, oinarri konstituzionala dauka. Hain zuzen ere, honako hau ezartzen du EK-ko 36. artikulua: “Legeak elkargo profesionalen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute”.

25. Elkargodun lanbideak lehia askearen araubidean egin behar dira, eta guztiz aplikatu behar zaie Lehiaren Defentsarako Legea. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudi-aldaketekin¹². Aipatutako zuzentarau horren aurretiko beste arau batzuk hartu dira oinarri profesionalen elkargoak arautzeko Estatuan eta EAEn: Profesionalen Elkargoei buruzko Estatuko Legea, 1974koa (aurrerantzean, 2/1974 Legea); eta Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko legea, 1997koa (aurrerantzean, 18/1997 Legea).

26. Nolanahi ere, sakon aldatu zen elkargoen arauketa, Zerbitzuei buruzko Zuzentarauaren aldarrikapenaren ondorioz. Hala, bada, une honetan zuzentarauaren transposizioaren estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako hainbat araudik aldaketa ugari eragin dituzte arau haietan, eta, horrenbestez, baita elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere. Kontuan

⁸ 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzkoa (BOE, 190. zk., 2010eko abuztuaren 6koa).

⁹ Apirilaren 5eko 327/2002 Errege Dekretuak onetsia. (BOE, 95 zk., 2002ko apirilaren 20koa). Maiatzaren 13ko 523/2005 Errege Dekretuak aldatua (BOE, 128. zk., 2005eko maiatzaren 30ekoa).

¹⁰ 2003ko martxoaren 14ko Ezohiko Batzar Nagusiak onetsia eta 2011ko maiatzaren 26ko Ohiko Batzar Nagusiak aldatua.

¹¹ BOE, 266 zk., 1999ko azaroaren 6koa. Azken aldaketa 2015eko uztailaren 15ekoa da.

¹² 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.



hartzekoak dira, batik bat, Aterki Legea (17/2009), Omnibus Legea (25/2009) edo EAEko 7/2012 Legea¹³.

27. 18/1997 Legearen xedea hau da: “Tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian edota arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da”.

Elkargo profesionalen Legeak, batetik, helburu publiko jakin batzuk aitortzen dizkie elkargoei; lanbidearen antolamendua, esate baterako; aldi berean, izaera pribatuko beste xede batzuk ere aitortzen dizkie, hala nola elkargokideen interesen alde egitea. Hortaz, elkargoek izaera duala dutela esan ohi da.

28. Elkargo profesionalak hitzez hitz bete behar dituzte Estatutuak edo elkargoaren gainerako arauak, eta hori beren jardun osora zabalduko da. Hori dela eta, Estatutuen testua kontuan izan gabe, Elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako¹⁴.

29. Honako hauek eratzten dute EHAEoren oraingo lege-esparrua: Arkitektoen Elkargo Ofizialen estatutu orokorrek eta Kontseilu Gorenak (apirilaren 5eko 327/2002 Errege Dekretuak onetsia) eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Estatutu bereziak (2003ko martxoaren 14ko Ezohiko Batzar Nagusiak onetsia eta 2011ko maiatzaren 26ko Ohiko Batzar Nagusiak aldatua).

2. Itun bidezko amaieraren lege-oinarria

30. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 52. artikulua ezartzen duenez, Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak (oraingo MLBN), lkerketa Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta jardunbideen inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta

¹³ 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Aterki Legea); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatzen dituena zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko (Omnibus Legea); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena. 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

¹⁴ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



ustezko arau-hausleek konpromiso batzuk hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokaerek lehia eragindako ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada¹⁵.

Konpromiso horiek lotesleak izango dira, eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Aipatutako artikuluko hirugarren lerrokadaren arabera, prozedura itun bidez amaitzea instrukzio-organoak zehatzeko ebazpenaren proposamenaren txostena igorri baino lehen proposatu da.

3. Konpromisoen balioespena

31. Auzi ugari aztertu behar dira Ordezkaritzak atzemandako lehia-arazoei aurre egiteko aurkeztu dituen konpromisoak nahikoak eta egokiak diren erabakitzeko.

Ordezkaritzak onetsitako arauketa dute ardatz arazook; izan ere, baldintza murriztaileak ezartzen ditu poltsetan parte hartzeko, ikus-onetsi behar ez diren lanak nahitaez ikus-onesteko betebeharra ezartzen du, esleitutako lanak Ordezkaritzan ikus-onestea eskatzen du, ordainsariak elkargoaren bidez kobratzeko betebeharra ezartzen du eta lanak profesionalen artean esleitzeko eta banatzeko sistema bat ezartzen du.

32. Aipatutako poltsen arauketa behin betiko ezabatzea da, hain zuzen ere, Ordezkaritzak aurkeztutako konpromiso nagusia. Konpromiso hori hartzea positiboa da, arauketa horrek eragin baitu espedientea irekitzea.

Edozelan ere, beren jarduna betetzeko eta legeak hala agintzen duelako erakundeek eskatzen dituzten zerrendak mantenduko dira.

33. Bigarren konpromisoaren barruan, Ordezkaritzaren eta profesionalen bat eskatzen duten interesdunen artean bitarteko izateko beste formula bat proposatzen du Ordezkaritzak, arkitektoen “zerrendak” direlakoan bitartez, alegia. Lau zerrenda egingo lirateke, egin beharreko lanen arabera: arkitektoen

¹⁵ Lehiaren Defentsari buruzko Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eta haren zuzendaritza-organoei bertan egindako aipuei dagokienez (funtzioei, eskumen administratiboei eta prozedurei buruzkoak), ulertuko da, orobat, autonomia-erkidegoetan gaian eskumena duten instrukzio- eta ebazpen-organoei ere egiten zaizkiela, horiek Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 13. artikuluan jasotako eskumenei buruzkoak direnean. Horregatik, LEKak Itun bidezko amaiera erabakitzeko eskumena du.



zerrenda orokorra; eraikinen ikuskapen teknikoak; energia-eraginkortasunaren ziurtapenak; eta gida-arkitektoak.

Lanbidean aritzeko baldintzak betetzen dituen edozein arkitekto eman lezake izena borondatez zerrenda horietan.

Aurreko araudiarekin, Bizkaiko Ordezkaritzako elkargokide ziren profesionalak baino ezin zuten izena eman poltsetan; hori parte hartzeko murrizketatzat nahiz lurraldeko sarrera-hesitzat jo liteke, indarrean dagoen araudiak mugape guztietan jardutea ahalbidetzen baitu, elkargokide egindako tokia gorabehera.

Horri dagokionez, Ordezkaritzak berariaz argitu du lanbidean aritzeko lege-baldintzak betetzen dituen edozein arkitekto parte har dezakeela zerrendetan, “elkargokide den elkargo profesionala gorabehera”; lurralde-murrizketa, beraz, desagertu egiten da. Hala, MLBNk eskatzen duen lehen azalpena betetzen da.

Bestalde, elkargokide izandako denborari eta gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerei buruzko baldintzak desagertu dira zerrenda jakin batzuetan sartzeko, parte hartzeko oztopotzat jo baitzitezkeen.

34. Ordezkaritzan lan guztiak (baita aplikagarri den araudiaren arabera ikus-onestsi behar ez direnak ere) ikus-onesteko betebeharra ezabatu egiten da. Arauren batek (Ikus-onesteko Araudiak, kasurako) baino ezin izango lieke zama gehigarri hori ezarri profesionaleri; Ordezkaritzak, beraz, ezin ditu eskumenok bere egin. Horri dagokionez, Ordezkaritzak zin egiten du ez duela ikus-onesteari loturiko ezin baldintzarik eskatuko, ez eta esku hartuko ere, baldin eta nahitaezkoa ez bada edo alderdiek askatasun osoz hala eskatzen ez badute. Ontzat hartzen da neurri hori.

Areago, Ordezkaritzak, 2016ko otsailaren 12ko idazkian (espedientearen 104. orria), aditzera ematen du ikus-onespenak ez dituela inolaz ere ordainsariak eta kontratuaren gainerako baldintzak barnean hartzen eta alderdiek askatasun osoz adostu ditzaketela. Hala, MLBNk eskatzen duen hirugarren azalpena nahikoa betetzat ematen da.

35. Ordainsariak elkargoaren bidez kobratzeko betebeharra ere bertan behera gelditzen da. Elkargoek ezin dute zerbitzu mota hori ezarri: edozelan ere, borondatezkoa izan beharko du. Eta halakoetan ere lehia-arazoak sor ditzakete, prezioak bateratzeko mekanismo bezala balio baitute. Ondorioz, ontzat ematen da baldintza hori ezabatzea.

Ordainsarien baremoei dagokienez, Ordezkaritzak, arestian aipatutako 2016ko otsailaren 12ko idazkian (105. orria), honako hau adierazten du: “Ez da ordainsaririk ezartzen ‘lan-poltsen’ sistemaren bitartez lortutako enkarguetarako. Izan ere, arkitekto bakoitza aske da bezeroarekin prezioa



adosteko, eta bezeroa, bere aldetik, hura onartzeko ala errefusatzeko, dela lan-poltsaren sistemaren bitartez dela arkitektoak kontratatzeke beste edozein bidetatik”.

Horregatik, erantzuntzat jotzen da MLBNren txostenaren bigarren azalpena; hala ere, erne jarraituko du LEAk horri dagokionez.

36. Aurreko sistemak lanak esleitzeko sistema bat ezartzen zuen, Ordezkaritzak koordinatutako profesionalen arteko merkatu-banaketa ekar lezakeena. Profesional edo talde batek (poltsaren arabera) lan bat egiten zuenean, txandaka, poltsaren azken tokira igaro behar zuen; Ordezkaritzak egiten zuen aipatutako kudeaketa. Ordezkaritzak proposatutako sistema berriari esker, konpondu egingo litzateke arazo hori. Lan egin nahi duten profesionalen zerrenda osoa nahi duenari helarazteaz baino ez da arduratuko Ordezkaritza, eta zerrenda eskatzen duenak aukeratuko du, askatasun osoz, kasuan kasuko profesionala.

37. Bestalde, zerrendetan izena emateko, organo eskudunak unean-unean onesten dituen zenbatekoak ordaintzea eska dezakeela adierazi du Ordezkaritzak; zenbatekook zerbitzu hori emateak sortzen dituen administrazio-kostuak estaltzeko erabiliko dira. Azken zati horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Ordezkaritzak kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoak emandako zerbitzuarekiko proportzionala izan beharko duela, gardena betiere, gehiegizkoa eta diskriminatzailea izan gabe.

38. Poltsen arauketako murrizketak ezabatzeaz gain, lehiaren alorreko jardunbide egokien kode bat eratzeko proposamena aurkeztuko dio Ordezkaritzak EHAEOn Gobernu Batzordeari. Proposamen hori ere aintzat hartzekoa da, profesionalen arteko lehia askea eta osasuntsua sustatzeko eta hobetzeko balio izango du eta.

39. Hortaz, aurkeztutako konpromisoak onargarritzat jo litezke, lehia murrizten zuten jokabideak deuseztatzen baitira, eta horiek ziren, hain zuzen, espedientearen helburuak.

40. Halaber, instruktore honek uste du badirela kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk espedientea itun bidez amaitzearen alde egiteko. Alde batetik, poltsek oso eragin txikia izan dute¹⁶. Bestetik, LEA honekin lankidetzan aritzeko prest egon da beti Ordezkaritza. Aipatutako Ordezkaritzak bertan behera utzi

¹⁶ Ikusi Ebazpen Proposamen honen 15-18 atalak.



zituen lan-poltsak espedientea ireki ondoren, horri buruzko berariazko erabakirik jaso gabe ere.

41. Azkenik, ezinbestekoa da profesionalek eta erabiltzaileek EHAE Oren Bizkaiko Ordezkaritzaren lan-poltsen inguruko jardunbideetan egindako aldaketan berri izatea berehala. Aldaketok hedatzeko hartu diren konpromisoak egokiak eta nahikoak dira; hala ere, epe bat ezarri beharko litzateke LEKak xedatzen duen itun bidez amaitzeko ebazpena webgunean argitaratzeko. LEK honek uste du nahikoa dela urtebeteko epearekin.

42. LEK, bestalde, bat dator lerketa Zuzendaritzaren iritziekin; hartara, bere egiten du esku artean dugun espedientea itun bidez amaitzeko proposamena, honako ebazpen honen Eranskinean jasotako konpromisoekin bat.

43. Azpimarratutako guztia betez, eta arestian aipatutako lege-aginduak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusita, Lehiaren Euskal Kontseilu honek, 2017ko abenduaren 18ko saioan, eta espedientean aztertutako gertakariei dagokienez,

V. ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aipatutako zehapen-espedientea itun bidez amaitzea adostea, ontzat eta lotesletzat jotzen baitira Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzak hartutako konpromisoak (ebazpen honen Eranskinean xehatzen dira).

BIGARRENA.- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzak aipatutako konpromisoak bete behar ditu. Konpromisook ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 62.4.c) atalaren eta Lehiaren Defentsarako Araudiaren 39.7 artikulua araberak. Egoera horrek, bestalde, hertsapen-isunak ezartzea ekar lezake, bai eta zehapen-espediente bat irekitzea ere, hala balegokio.

HIRUGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritzari honako ebazpen honetan ezarritakoa (eta, hartara, hartutako konpromisoak eta ezarritako betebeharrak betetzen diren) zaintzearen ardura ematea.

Jakinaz bekie ebazpen hau Lehiaren Euskal Agintaritzako lerketa Zuzendaritzari, eta jakinaz bekie interesdun guztiei, eta adierazi behar zaie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta



administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.



ERANSKINA

EHAEO-REN BIZKAIKO ORDEZKARITZAK NAHITAEZ BETE BEHARREKO KONPROMISOAK

“LEHENA.- EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzak araututako eta kudeatutako lan-poltsen araudia behin betiko ezabatzea, hau da, hauen araudia: ‘Arkitektoen lan-poltsa’, ‘Eraikinen ikuskapen teknikoaren lan-poltsa’, ‘Energia-ziurtapenen lan-poltsa’, ‘Gida-arkitektoen lan-poltsa’ eta ‘Kanpoko lan-poltsa’. Hartara, aurreko lan-poltsen sistemaren araudia berariaz indargabetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dira.

BIGARRENA.- Partikularrek, sozietateek nahiz merkataritza-erakundeek eta administrazioek edo erakunde publikoek ‘zerrenden’ bitartez helarazi dituzten arkitektoak identifikatzeko eskaerak kudeatzeko sistema bat ezartzea, honela antolatuta:

Zerrendak eratzea: EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzak aukera emango die arkitekto elkargokide interesdunei, webgunean argitaratuta eta gutun bidez jakinarazita, jarraian aipatzen diren ‘zerrendetan’ edo beste edozeinetan (geroago sortu arren publikotasun bera duena) izena emateko urtero, hots:

-Arkitektoen zerrenda orokorra.

-Eraikinen ikuskapen teknikoak egiteko prest dauden arkitektoen zerrenda.

-Energia-eraginkortasunaren ziurtapenak egiteko prest dauden arkitektoen zerrenda.

-Gida gisa esku hartzeko prest dauden arkitektoen zerrenda.

Lanbidean aritzeko lege-baldintzak betetzen dituen arkitekto orok izango du aipatutako zerrendetan eta geroago sortutako beste edozeinetan izena emateko aukera, elkargokide den elkargo profesionala gorabehera.

Zerrendetan izena emateko, organo eskudunak unean-unean onesten dituen zenbatekoak ordaintzea eska dezake Ordezkaritzak; zenbatekook zerbitzu hori emateak sortzen dituen administrazio-kostuak estaltzeko erabiliko dira. Ordezkaritzak kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoak emandako zerbitzuarekiko proportzionala izan beharko du, gardena betiere, gehiegizkoa eta diskriminatzailea izan gabe.

Eskaerak kudeatzea eta zerrendak helaraztea: Ordezkaritzak jasotako arkitektoak identifikatzeko eskaerei erantzuteko, eskaerari dagokion zerrenda bidaliko zaio eskatzaileari.

Eskaera egiten duenak eta ez beste inork aukeratuko ditu profesionalak, dela zerrendatik dela beste edozein iturritatik; Ordezkaritzak ez du inola ere esku hartuko erabakian.

Ez da ikus-onespenari loturiko ezein baldintzarik eskatuko, ez eta Ordezkaritzaren inongo esku-hartzerik ere, baldin eta nahitaezkoak ez badira edo alderdiek askatasun osoz eskatzen ez badituzte.

Egindako eskaeren ondorioz Ordezkaritzak edo EHAEOk jasotzen duen informazioa helburu estatistikoetarako erabiliko da.



HIRUGARRENA.- Beren jarduna betetzeko eta legeak hala agintzen duelako administrazioek edo erakunde publikoek eskatzen dituzten zerrendak mantentzea, hala nola Prozedura Zibilaren Legearen 341. artikuluan, 1862ko maiatzaren 28ko Notariotza Legearen 50.1 artikuluan eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 55. eta 128. artikuluetan adierazitako adituen zerrendak.

LAUGARRENA.- Ordezkaritzaren eta EHAEOn webguneetan arkitektoei zuzendutako lan-eskaintzak txertatzeko eremu bat eratzea.

BOSGARRENA.- EHAEOn Gobernu Batzordeari arkitektoentzako lehiaren alorreko jardunbide egokien kode bat eratzeke proposamena aurkeztea, Lehiaren Euskal Agintaritzza horrekin elkarlanean.

SEIGARRENA.- Itun bidez amaitzeko ebazpenaren eduki osoa hedatzea eta, hala balegokio, Ordezkaritzaren komunikabideen bitartez onartzea; zehazki, Ordezkaritzaren eta EHAEOn webguneetan sartu beharko litzateke, eta elkargokideei horren gaineko gutun bat helarazi beharko litzateke. Itun bidez amaitzeko ebazpen hau gutxienez urtebetez egongo da EHAEOn webgunean.

ZAZPIGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritzari hartutako konpromisoak egikaritu direla egiaztatzen duen dokumentazioa helaraztea, konpromisoak bete direla egiazta dezan.

Konpromiso horiek guztiak berehala bete beharko dira, gehienez ere lau hilabeteko epean zehapen-espidentea itun bidez amaitzen den unetik zenbatzen hasita”.